



LARRABETZU



LARRABETZUKO UDALERRIKO EUSKARAREN KUDEAKETA PLANA 2015



2014ko abendua



Aurkibidea

Sarrera	1
Planaren diseinua. Taulen azalpen eranskina	2
Kudeaketa Plana 2015	
1.1. Familia transmisioa	3-4
1.2. Irakaskuntza	5-6
1.3. Euskalduntzea-Prestakuntza	7-8
2. Arlo sozioekonomikoa	9-10
3. Aisia eta kirola	11-13
4. Kulturgintza	14-15
5. Larrabetzu orokorrean	16-18

SARRERA

Hizkuntzaren normalizazioan aurrera egin bidean, Larrabetzuko Euskararen Plan Estrategikoa (2015-2017) hizkuntza politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna da.

Euskararen **Kudeaketa Plana 2015** Larrabetzuko Udalak Ahize-ak aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da. Aurretik Ebaluazio-Diagnostikoa eta Plan Estrategikoa (2015-2017) diseinatu ondoren, herritarren ezinbesteko laguntzarekin diseinatutako plana da. Maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi gura duten larrabetzuarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea du xede.

Azken urteotan ugariak izan dira Euskararen Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana diseinatzeko eta herri mailako neurriak adosten hasteko beharrezana ikusi duten eragileak (eskolako guraso zein irakasleak, Udala, euskara elkarteak, herritarrak...). Herriko euskara erabileraren gaineko pertzepzio orokorraz gain, beste hainbat iturri ere izan dira kezka horren abiapuntu: 2011n soziolinguistika klusterrak eginiko kale neurketa, datu soziolinguistikoak (2011), herriko eskolaren diagnostikoa...

Euskaren Plan estrategikoa diseinatzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa izan da udalerriko hainbat arlotako eragileen parte-hartzea; eta eurekin izandako elkarriketen zein Euskararen Aholku Batzordeko parte hartzaileen ekarpenen emaitza da honako dokumentu hau.



Larrabetzuko Euskararen Kudeaketa Plana 2015

Diseinua

Ebaluazio-diagnostikoa eta Plan Estrategikoa (2015-2017) diseinatu ondoren, Kudeaketa Plan hau herritar eta elkarteekin elkarlanean osatu da. 2015ean egingo den ekintza multzoa biltzen duen dokumentua da.

Dokumentu honen egituraren azalpena hurrengo lerrootan duzu ikusgai. Dokumentuaren goiko aldean esparrua eta kodea (esparruen kodifikazioa) azaltzen dira. Ondorengo taulan (gris kolorez) esparru horretako arduraduna, lantaldea, xede taldea, esparruaren edo arloaren xedea agertzen dira.

Segidan, taula nagusia duzu ikusgai. Ezkerraldeko lehenengo bi zutabeetan, Plan Estrategikoaren lehentasun eta ekintzei dagozkie. Gainontzeko zutabeak 2015eko Kudeaketa Planari dagozkio. Horrela, 2015eko Kudeaketa Planaren eta 2015-2017 Plan Estrategikoaren arteko lotura ikusgai jarri nahi izan dugu.

Kudeaketa Planeko hitz gakoak

Ekintza zehatza	Plan estrategikoan jasotako ekintza aurrera eramateko 2015ean egingo den ekintza zehatza da.
Lantaldea	Zehaztutako ekintza zehatza aurrera eramateko orduan ardura izango edota laguntza emango duen erakunde edo eragile taldea da.
Xede Taldeak	Ekintza zehatzak eragin beharko duen pertsona edota taldea da. Adibidez: gurasoak, begiraleak, Udala, koadrilak, kirol taldeak, erakundeak ...
Baliabideak, aurrekontuak, oharra...	Ekintza zehatzaren gaineko informazio gehigarria eta lagungarria da.
Noiz, zenbatero	Ekintza zehatzaren gaineko denboralizazio lagungarria da: garaia, maiztasuna...
Adierazleak	Ekintza zehatzaren balorazioa neurtzeko adierazle lagungarria da.
Garrantzia	Euskararen Aholku Batzordean eragileek elkarlanean ekintza zehatzari emandako garrantzia da: handia (H), ertaina (E) eta txikia (T).
2015	Ekintza 2015ean edota aurrerago egingo den adierazten du.

ESPARRUA	Kodea
FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	1

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Eskola, euskara elkarte, mankomunitatea, guraso elkarte, gurasoak, Hori bai, eskualdeko institutua
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	umeak, gazteak, gurasoak
Arloaren xedea (zertarako)	Helduen artean familia bidezko transmisioak duen garrantzia ezagutaraztea eta transmisioa bermatzeko eredu bihurtzea

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatza	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharra...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	garra ntzia	2015
1	1.1.1. Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea.	Plaza, txinbo eta herriko kaleetan, erreferente den guraso talde bat sortu gurasoen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bultzatzeko.	Eskola, guraso elkarte, gurasoak, Udala	Herritarrak, Koadrilak, gurasoak	Adibidez: transmisio elkargunea sortu guraso, irakasle, udal ordezkaria, herritarrekin... Euskararen erabilera sendotzeko transmisioan neurriak adostu eta hartu.	Urtean bizpahiruta n	Taldea hiruzpalau aldiz elkartzea	E	✓
2	1.1.2. Euskararen erabilerarako dauden guneak baliatzea.	Eskola, txinbo zein plazan gurasolagun bezalako egitasmoak martxan jarri.	Mankomunitatea, Udala, berbalagun arduraduna	Gurasoak, familiak, umeak, gazteak	Egiten dena indartu. Mankomunitate, eskola eta guraso elkartearekin elkarlanean gurasoak egitasmorea erakarri. Irakasleen bitartez, esku-orriak, web orria, sare sozialak	Ikasturte osoan	parte hartzaile kopurua eta jarraipena	H	✓
2	1.1.3. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.	Gurasoentzako ekintza erakargarriak identifikatu eta euskaraz eskaini (sare sozialak, elikadura...). Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak...	Mankomunitatea, Udala, eskola, guraso elkarte	Gurasoak, familiak, umeak, gazteak	Galdetegia pasa eskolako gurasoei. Erantzunen arabera ikastaro edo tailer erakargarriena eskaini.	Ekainean	Galdetegia osatu eta erantzun kopurua	E	✓

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatza	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	garra ntzia	2015
1	1.1.4. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezten.	Batez ere guraso berrientzako sentiberatze ekintzak antolatu (ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak... umeen adin tarteen arabera saioak antolatu).	Guraso elkarteak, mankomunitatea, eskola, Udala, gurasoak	Gurasoak eta gurasogaiak	0-3 eta 4-12 urteko arteko gurasoentzako transmisio ikastaroa; Paula Casares. Euskara menperatzen ez duten gurasoei etxeko lanak egiten laguntzeko ikastaroa; Iñaki Eizmendi.	2014/2015 ikasturte hasieran	Bi urterik behin	H	✓
1	1.1.5. Gurasoak eredu: Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak lantzea.	Gurasoekin landu hizkuntza lidergoa. Bikote hizkuntza gisa euskara indartzeko tailerrak.	Guraso elkarteak, mankomunitatea, eskola, Udala, gurasoak	Gurasoak eta gurasogaiak	EusLiderrak tailerra. Gurasoei zuzendutako tailerra da. 2000€.	2015/2016 ikasturtean	Gurasoen parte hartzea	E	✓
2	1.1.6. Guraso, gurasogai eta aitite-amamengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.								
1	1.2.1. Familia bidezko transmisioa sendotu dezaketen hizkuntza-ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzea.	Eskola, txinbo zein plazan gurasolagun, Parketarrak eta antzeko egitasmoak martxan jarri.	Eskola, guraso elkarteak, Kukubel, ludoteka, gurasoak, mankomunitatea	3-6 eta 6-9 urteko umeen familia bere osotasunean	Parketarrak bezalako egitasmoa. Herriko plaza eta txinboetan eragiteko.	Bizpahiru hilabetez, astean bi egunez	Umeen parte hartzea	H	✓
		Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta.	Eskola zein guraso elkarteekin elkarlanean.	Gurasoak, gurasogaiak, amama-aititak, umeak, gazteak	Euskara egunean familia osoarentzako ekitaldiak. Olentzero eguna, eskolako jaia, ipuin kontalariak...	Gabonetan eta urtean beste 2-3 aldiz	Parte hartzea	E	✓
		Konpromiso pertsonalak adostu eta hartu. Mintzaratua, hitzarmengintza...	Mankomunitatea, Udala	Gurasoak, familiak, umeak, gazteak	2016ean gurasolagun taldeekin mintzartatu eta konpromisoen arloa lantzeko neurriak aztertu. Herriko mailako konpromisoarekin lotuko da.	2016an egiteko	Konpromiso kopurua	H	2016
1	1.2.2. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.	Umeei guraso eta aitite-amamen ipuin eta kondairekin mundu magikoa transmititu.	Udala, eskola, gure etxea, kultur bilgunea, kultur etxea	Gurasoak, gurasogaiak, amama-aititak, umeak,	Herriko edo inguruko ipuin kontalarien eskutik. Anguleri ipuin kontaketarako egokitu.	Gabonetan	Parte hartzea	H	✓
		Erabilera eta sentsibilizazio lantzeko guraso eta inguruko eragileen artean bilerak, tertuliak...	Eskola, guraso elkarteak, gurasoak, Udala	Herritarrak, Koadrilak, gurasoak	Herri mailako kafe/mokau tertuliak antolatu. Besteak beste transmisioaz hitz egiteko.	Urtean bi aldiz	Bilera kopurua. Parte hartze kopurua	H	✓

ESPARRUA	Kodea
IRAKASKUNTZA	2

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Eskola, euskara elkarte, mankomunitatea, guraso elkarte, gurasoak, Hori bai, eskualdeko institutua
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	umeak, nerabeak, gazteak, helduak, gurasoak, irakasleak
Arloaren xedea (zertarako)	Umeen artean eskolan zein eskolaz kanpo euskara ohiko hizkuntza funtzionala izatea

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatza	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	garra ntzia	2015
1	2.1.1. Gizarte, hezkuntza, aisia/kirola eta kultur taldeekiko loturak sendotzea.	Ikastetxean ikasle liderrak identifikatu. Eskualdeko institutuarekin harreman sareak osatu.	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	12-18 nerabeak Helduak Gurasoak Irakasleak	Institutu, eskola eta mankomunitatearekin elkartu.	Ekaina, iraila	Bilera aktak	H	✓
		Gazteen artean hizkuntza ohitura berriak sortzeko lidergo kateak lantzea. Derioko institutuan ikasten duten ikasleek Larrabetzuko eskolan lidergo kateak sortzea. Adb: EusLiderrak...	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	12-18 nerabeak Helduak Gurasoak Irakasleak	3500€. gastuak elkarbanatu	Institutu eta eskolarekin adostu data	Parte hartzea. Urtero jarraipena egin	H	✓

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatza	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	garrantzia	2015
1	2.1.2. Gazteekin lidergoa lantzea	Gazteen euskara erabilera ohiturak aztertu eta neurriak proposatu.	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	12-18 nerabeak Helduak Gurasoak Irakasleak	Institutu, eskola eta mankomunitatearekin elkartu.	Ekaina, iraila	Bilera aktak	E	✓
		Hizkuntza ohituren garrantzia azpimarratzea institutura salto egin aurretik.	Institutua, eskola, Udalak, mankomunitatea, Hori bai	12-18 nerabeak Helduak Gurasoak Irakasleak	Formazio eskaini gazteei ohituretan eraginez. eusLiderrak tailerrekin jarraipena ematea izan daiteke.	Ikasturte bukaeran edo hasieran	Parte hartzea eta ikasleen balorazioa	H	✓
3	2.2.1. Herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez informazioa ematea.	Prestakuntza zerbitzu aukera berriak sortzen direnean herrian zein eskualdean herritarrei jakitera eman.	Udala, eskola, mankomunitatea	gazteak nerabeak helduak gurasoak irakasleak	Sare sozial, eskola edota esku orri bidez jakitera eman.	Aldiro aldiro, hala dagokionean	Sortutako komunikazio kopurua	T	✓
1	2.2.2. Eskolako atsedendietan umeen euskararen erabilera areagotzea.	Eskolako atsedendietan euskaraz jolasteko ohitura lantzeko tailer eta jolasak. Euskara=eskola asozioazioa. Adb: Urtxintxa.	Eskola, guraso elkarteak, Udala, mankomunitatea	2-12 umeak	Dagoeneko irakasleek egiten dutena indartzeko aukerak aztertu eskolarekin batera. Dinamika, jolasak.. eskolako atsedendietan.	Ikasturtea hasi aurretik	Parte hartzea eta ikasle zein irakasleen balorazioa	E	✓

ESPARRUA	Kodea
EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA	3

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Euskara elkarteak, mankomunitatea, euskaltegiak, elkarteak, guraso elkarteak, eskola
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	Ikasleak, herritarrak
Arloaren xedea (zertarako)	Herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko baliabideak eskaintzea

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintzak	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldea	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	3.1.1. Premiei malgutasunez erantzuteko finantziario sistema egokitzea. Eta dagokionean diseinatzea.	Euskara ikasleentzako diru-laguntza sistema aztertzea eta hobetzea.	Mankomunitatea , Udala	Ikasleak	Adb: Diru-laguntza partida igo, baldintzak egokitu...	Urtero	Ikasleen eskaera kopurua	E	✓
		Diru-laguntzen sistemaren berri eman.	Mankomunitatea , Udala	Ikasleak	Mankomunitateari komunikazioa indartzeko edo egokitzeko proposatu. Udalak bere komunikazio bideak lantzea.	Ikasturte hasieran. Diru-laguntzen eskaria baino lehenago.	Komunikazio kopurua. Diru-laguntza kopurua.	E	✓

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintzak	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xedetaldia	Baliabideak, aurrekontuak, oharak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
2	3.2.1. Erabilera eta praktika uztartzea. Mintzapraktika egitasmoak zabaltzea.	Mintzalagun, Berbalagun...	Udala, mankomunitatea, elkarteak, euskaltegiak, Berbalagun, eskola, guraso elkarteak	Ikasleak, herritarrak	Berbalagun taldeei bultzada eman. Arduradunekin elkarlanean jendearengana heltzeko komunikazio estrategiak landu eta garatu.	Ikasturte hasieran eta urtarrila aldera	Berbalagun kopurua	E	✓
		Mintzamena helburu duten ekimenak antolatu gune naturaletan eta zabaldu (gurasoen irteeratan, esaterako).	Udala, mankomunitatea, elkarteak, euskaltegiak, Berbalagun, eskola, guraso elkarteak	Ikasleak, herritarrak	Talde berriak sortzeko aukera aztertu EABn. Adb: Mintzaperretxikotan, mintzargazki lehiaketa...	Urtean behin	Talde berriak	E	✓
		Idazketa eta komunikazio argi bezain erabilgarria lantzeko tailer txikiak antolatu.	Udala, mankomunitatea, elkarteak, euskaltegiak, Berbalagun, eskola, guraso elkarteak	Ikasleak, herritarrak	Tailer txikitxo eta praktikoak antolatzea herritarrei begira. Mankomunitatea, Berbalagun, AEK	Urtean bi aldiz	Parte hartzaileen balorazioa	H	✓
1	3.3.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.	Euskaltegietako matrikula kanpaina pertsonalizatuak...	Udala, mankomunitatea eta euskaltegiak	Ikasleak	Gurasoei, erroldatu berriei, euskaldun berriei, nagusiei...	Urtero	Matrikulazio jarraipena	E	✓
		Euskara jakin eta erabiltzeak dituen onurak azpimarratu mezu erakargarri bidez.	Udala	Herritarrak	Sare sozial, berbalagun eta euskaltegien bitartez	Urtean bizpahiru aldiz	Mezu kopurua	E	✓

ESPARRUA	Kodea
ARLO SOZIOEKONOMIKOA	4

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Euskara elkartea, mankomunitatea, tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak, Gurgide
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	Merkatariak, tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak, gazteak, koadrilak
Arloaren xedea (zertarako)	Merkatari, ostalari eta kontsumitzaileengan eragitea merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetan euskara era naturalenean erabil dadin

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharra...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	4.1.1. Merkatarik, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak (adb: hizkuntza hautua) bermatzeko neurriak hartzea	Hitzarmengintza prozesua.	Udala, mankomunitatea, merkatarik, Euskaltegiak	Merkatarik/tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak	Alde biko baldintzak adostu eta hitzartu Udalarekin.	2016, euskara egunean	Hitzarmen kopurua	E	2015/2016
		Euskara kalitate marka aitortzeko aukerak aztertu eta aholkularitza eskaini ostalari eta merkatariei. Ziurtagiriak...	Udala, mankomunitatea, Euskara ziurtagirien elkarteak	Merkataritza eta ostalaritza establezimenduak	Euskara Ziurtagirien gaineko aholkularitza eskaini.	Dagokionean	Establezimendu kopurua	E	2015/2016
		Zozketak, txapelketak egin euskaraz kontsumitzera bultzatzeko. Adb: esaera zaharrak landuz, euskalkia landuz, asmakizunak landuz...	Udala, mankomunitatea, merkatarik	Merkatarik/tabernariak, kontsumitzaile eta erosleak, koadrilak, gazteak		2016, 2 aldiz	Parte hartzea	H	2015/2016
		Beharsarea edo lan-sarean bezalako sare-atariak sortu (euskarazko lan eskaintza eta eskaria lotu ...)	Udala, mankomunitatea, merkatarik	Merkatarik, tabernariak eta herritarrak	Martxan diren sareak erabili edo horien ildokoak sortu (aurrekontua...)	2016 urtean	Parte hartzea	E	2015/2016

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharra...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
	4.1.1. Merkatori, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak (adb: hizkuntza hautua) bermatzeko neurriak hartzea	Oinarrizko komunikazioa euskaraz egiteko ikastaro egokituak(maila, denbora eta modulazio aldetik) euskaraz ez dakiten merkatori eta ostalarientzat.	Udala, mankomunitatea, merkatoriak	Merkatoriak eta tabernariak	Establezimenduekin elkartu ondoren, hurrengo urtean ekimena bideragarria den aztertu.	2016 urtean	Parte hartzea	E	2015/2016
		Errotulazio eta abarren diru-laguntzak aztertu eta egokitzea.	Udala, mankomunitatea, merkatoriak	Merkatoriak, tabernariak, enpresak	Merkatori, tabernari eta mankomunitatearekin batera egokitzen aztertu.	Urtero	Egokitzapenak	E	√
		Establezimenduekin elkartu eta elkarrekin beharrianak identifikatu eta neurriak hartu.	Udala eta mankomunitatea	Merkatoriak, tabernariak, enpresak	Merkataritza establezimenduen euskara beharrianak identifikatu.	Urtero	Beharrianak identifikatu	H	√
1	4.2.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea. Euskara erabilera egoki batek dakartzan onurak azpimarratzea: balio erantsia, zerbitzu kalitatea, lehiakortasuna, herri ongi-izatea.	Pintxo poterako euskarriak euskaraz eskaini.(karteltxoak, iragarkiak...)	Udala, mankomunitatea, merkatoriak	Merkatoriak, Tabernariak, gurgide		2016 urtean	Parte hartzea	E	2015/2016
		Sentsibilizazio kanpainak: "Lehenengo berba euskaraz, bigarrena BEBAI".	Udala, merkatoriak eta tabernak	Merkatoriak, tabernariak, gazteak, koadrilak, erosleak eta kontsumitzaileak	Lehenengo hitzaz gain bigarrena ere euskaraz egiteko kanpaina.	2016 urtean	Parte hartzea eta balorazioa	H	2015/2016
		Pintxo-pote: musikatua, bertsolariekin, esaera zaharrak...	Udala, Hori bai, bertso eskola, merkatoriak.	Merkatoriak, Tabernariak, gazteak, koadrilak, erosleak eta kontsumitzaileak	Egun egokia aukeratu eta aukerak aztertu (bertsolariekin, musikatua...).	Hilero	Parte hartzea	H	√
		Herriko enpresei jarduna erabat euskaraz egiteko baliabideak eta aholkularitza eskaini. Eredugarri bihurtu.	Udala, mankomunitatea	Merkatoriak, tabernariak, enpresak	Aholkularitza eman ondoren, zabalpena egin eta eredugarri bihurtu.	Urtero	Aholkularitza jaso duten eragile kopurua	E	√
1	4.3.1. Denda eta tabernen irudia euskalduntzea. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz jartzeko kanpainak martxan jartzea.	Kartelak, oharra, ordutegiak, errotulazioa, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatu, eskaini, sustatu, laguntza teknikoak eskaini.	Udala eta mankomunitatea	Merkatoriak, tabernariak, enpresak	Aldiro-aldiri merkataritza arloko baliabideen berri eman merkariei.	Urtero	Komunikazio kopurua	H	√
		Euskal musikarekin 2 orduko CD-a banatu taberna eta dendetan (adibidez, pintxo potean musika hori jartzeko...)	Udala, merkatoriak eta tabernak	Merkatoriak, tabernariak, gazteak, koadrilak, erosleak eta kontsumitzaileak		Uda aurretik	Herritarren balorazioa	E	√

ESPARRUA	Kodea
AISIA eta KIROLA	5

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Eskola, euskara elkarteak, tabernariak, aisia eta kirol elkarteak, kukubel, Hori bai, mankomunitatea, gurasoak,
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	Gazteak, koadrilak, umeak, nerabeak, entrenatzaile eta begiraleak...
Arloaren xedea (zertarako)	Aisia eta kiroleko jarduna euskaraz izan dadin bermatzea.

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	5.1.1. Tabernetan, futbol zelaian, frontoian, plazan... harreman informalak euskalduntzea	Errefrau poteoa, kantu poteoa	Udala, merkataria, koadrilak, elkarteak	Gazte koadrilak, heldu koadrilak, tabernariak, kirolariak	Merkataritzako ekintzarekin lotuta dago.	Hilero	Parte hartzea	E	√
1	5.1.2. Umeen jolasteko hizkuntza ohiturak euskara hutsean izatea	Umeen aisialdian euskaraz jolasteko ohitura lantzeko tailer eta jolasak. Kaleko jolas tradizionalak...	Udala, ludoteka, mankomunitatea, eskola, gurasoak, Kukubel	Umeak	Parketarrak bezalako egitasmoa jolas tradizionalekin (3-6, 6-9 urteko umeekin)	3-4 hilabetez	Parte hartzea	H	√
1	5.1.3. Gazteen artean euskararen irudia hobetu (prestigiatu) eta indartzea.	Hori Bairekin batera ekintzak antolatu gazteek lidergoa har dezaten. Azpiegitura eta baliabideen laguntza eman.	Mankomunitatea, Udala, elkarteak, Hori Bai	Gazteak eta nerabeak	Monitore gazteak formatu koadrilategi egitasmoa aurrera eramateko. Hala dagokionean baliabideak erraztu.	Urtean zehar	Parte hartzea eta baliabideen laguntza.	E	√
1	5.1.4. Nerabeekin elkarlana sustatzea.	Sare sozialak euskaraz erabiltzera bultzatu. Mezuak zabaldu, baliabideak eskaini...	Udala, Hori bai, elkarteak	Gazteak, herritarrak	Mugikorretarako euskara aplikazioak zabaldu, eskaini ...	Urtean zehar	Zabalpen kopurua	T	√

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garrautzia	2015
1	5.1.5. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz, euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea.	<p>Euskal kultura-kirol olinpiadak, gymkana...</p> <p>Zinema euskaraz ikusteko baliabideak eskaini.</p> <p>Koadrilategi egitasmoa.</p> <p>Dagoeneko antolatzen diren eta antolatuko diren euskararekin lotutako irteerak bultzatu. Adibidez: kilometroak, korrika...</p> <p>Helburu taldearen arabera hitzaldi erakargarriak bultzatu: elhuyar aldizkaria, zientzia, teknologia, "matematika eta fisika errazak dira", "sexuarekin lotutako ikastaroak" bezalako tailerrak...</p>	Udala, Hori bai, mankomunitatea, kultur eta kirol/aisia elkarteak, kultur etxea, Urtxintxa	Gazte koadrilak Heldu koadrilak Herritarrak Umeak	<p>Koadrilan (12-14) hizkuntza ohiturak aztertu eta landu.</p> <p>Urtean bizpahiru pelikula euskaraz</p> <p>Herritarren nahien arabera tailer edo hitzaldiak antolatu.</p>	Urtean zehar	Ekintzen balorazioa	H	√
3	5.2.1. Hizkuntza gaitasunak hobetzea batetik, eta landu dagokion xede taldearen erabileran eragitea.	<p>Entrenatzaile/begirale euskaldunak jarri taldeetan. Eta baliabideak eskaini (ikastaroak).</p> <p>Entrenatzaileak xede taldeekiko eredugarri bihurtu. Eta horretarako, hizkuntza lidergoa landu.</p> <p>Udalak aisia zein kirolerako egiten dituen kontratazioetan hizkuntza irizpideak zehaztu eta eguneratu.</p>	Udala, aisia eta kirol elkarteak, mankomunitatea, begirale/entrenatzaileak	Entrenatzaileak, gazteak, begiraleak, elkarteak	Ekintza eta neurrien abiapuntua diru-laguntzen azterketa eta egokitzapena izan daiteke.	Urtean zehar	Ekintzen balorazioa eta parte hartzea	E	√
3	5.2.2. Aisialdiko ekimenetara bideratzen diren begiraleen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak aztertzea eta txertatzea.	Udalak aisia zein kirolerako egiten dituen kontratazioetan hizkuntza irizpideak zehaztu eta eguneratu.							
3	5.3.1. Aisialdi eta kirol ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea. (diru-laguntzen kudeaketa)	Elkarteei zuzendutako diru-laguntzen azterketa, egokitzapena eta komunikazioa.	Elkarteak, Udala	Elkarteak oro har, herritarrak, gazteak, kirolariak	Diru-laguntzeko hizkuntza irizpideak aztertu. Egokitzapenak Komunikatu. Jarraipena egin, betetze maila neurtu.	Urtean zehar	Egokitzapen betetze maila	T	√

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehent asuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	5.4.1. Kirol-arloan euskararen erakargarritasuna landu eta era egokian proiektatu eta hedatzea.	Kirol arloko kanpaina diseinatzea aztertu. Elkarteei zuzendutako diru-laguntzen azterketa eta egokitzapena.	Udala, mankomunitatea, elkartek	Herritarrak, kirolariak, gazteak, elkartek	Neurriak hartzen dituzten elkarteak saritu. Diru-laguntzeko hizkuntza irizpideak aztertu. Egokitzapenak Komunikatu. Jarraipena egin, betetze maila neurtu, gabeziak identifikatu eta neurriak hartu.	Urtean zehar	Egokitzapene n betetze maila	E	√
3	5.4.2. Elkarteekin batera antolatzen diren ekitaldi garrantzitsuetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.								
1	5.5.1. Aisialdi eta kirol taldeekin lankidetzan, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.	Hizkuntza irizpideak aztertu eta hobekuntzak txertatu. Adb: urtero Udalarekin elkartu eta gabeziak identifikatu eta neurriak hartu. Helduen ikastaroak euskaraz emateko antolatzaileengan eragin. Asebetetze inkestak egin aisia eta kulturako ekintzetan.	Udala, mankomunitatea, elkartek, erakundeak	Elkartek, herritarrak, helduak, nagusiak	Helduentzako ikastaroak antolatu aurretik, antolatzaileekin elkartu eta ikastaroa euskaraz izateko garrantzia azpimarratu.	Urtean zehar	Egokitzapene n betetze maila	H	√
1	5.5.2. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea, ikastaroak eta ekintzak euskaraz ere antolatzeko.								

ESPARRUA	Kodea
KULTURGINTZA ETA LIBURUGINTZA	6

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Hori bai, euskara elkarte, elkarteak, Eusko Jaurilaritza, mankomunitatea, guraso elkarte, herritarrak, aditua...
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	Herritarrak oro har (ume, nerabe, gazte, heldu, guraso, nagusi...)
Arloaren xedea (zertarako)	Euskarazko kultura indartu eta herritarrak erakartzea.

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	6.1.1. Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema eratzea.	Kultura bono sistema. Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina.	Udala, mankomunitatea, elkarteak, topagunea	Herritarrak oro har		gabon aurretik edo ikasturte hasieran	Kanpainaren balorazioa	E	✓
1	6.1.2. Elebidun pasiboak erakarri kultur arlotik.								
2	6.2.1. Sorkuntza sustatzeko egitasmoak bultzatzea, abian jartzea edota indartzea.	Literatura sariak. Ume eta helduen ipuin lehiaketak. Euskalki lehiaketak, asmakizunak... Jolasak, bideojokoak, marrazki bizidunak, musika...	Udala, mankomunitatea	Herritarrak oro har	Beste arloekin batera, adibidez: merkataritza eta aisialdian esaera zaharren lehiaketa...	Urtean zehar	Ekintzen parte hartze eta balorazioa	E	✓

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehent asuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
3	6.3.1. Eskaintza dibertsifikatu eta aberasteko formulak identifikatu eta aplikatzea.	Herrian egiten diren kultura zein bestelako ekintzen zabalkunde egokia egin.			Eskuragarri dagoen "Larrabetzu eskura" aplikazioa baliatu.				
1	6.3.2. Kultura agenda sarean zabaltzea. Erakundeen arteko elkarlana sendotzea.	Bestelako euskarazko komunikabideak bultzatu, sustatu, azpiegitura ...	Udala, mankomunitatea, elkarteak, herritarrek	Umeak, nerabeak, gazteak, helduak, herritarrek oro har	Mezuak zabaltzea: sare sozialak, esku-orriak, kartelak...	Urtean zehar	Ekintzen parte hartze eta balorazioa	E	✓
2	6.3.3. Herri eta eskualdeko komunikabideak babestu eta laguntzea.	Kultur etxean dagoen ume zein helduen kultura eskaintzari buruzko informazioa zabaltzea eta eskaera jaso. Adibidez: panelak, esku orriak, kartelak, sare sozialak...			Aikor lagun kanpaina.				
3	6.4.1. Herriko liburutegian helduentzako euskarazko liburuen presentzia handitzea.	Herritarrei euskara liburu, diska ... eskaintza helarazi eta beraien iritzia zein proposamenak jaso.				urtero.			
3	6.4.2. Irakurleen klubak bultzatzea.	Urtean bitan argitaratutako liburuen berri eman. Durangoko azokan eta ekainean.	Udala, Eusko Jaurlaritza, herritarrek, Elkarteak	Haur, gazte eta helduak	panelen bitartez, esku-orri, sare sozialak	Adb: Durangoko azokan eta ekainean.	Erabiltzaileen balorazioa	E	✓
3	6.4.3. Batez ere haur eta gazteei begirako liburu zein kultura produktuen euskarri berriak sustatzea.	Liburuen balorazio, ranking... egitea. Irakurketa tailerrak.							
2	6.5.1. Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko.	Mezuak zabaltzea: sare sozialak, esku-orriak, kartelak...			Kultura kontsumitzaileari eskuragarri jarri informazioa aukera zabala.	Urtean zehar			
2	6.5.2. Euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoak bultzatzeko komunikazio-ekintza eraginkorrak erabiltzea.	Gidak eta argitalpen txikiak prestatu, herri ondarea ezagutzeko txangoak, hitzaldiak... "Larrabetzuko euskera" bizipenen grabaketa.	Eskola, umeak, Udala, guraso elkarteak, mankomunitatea, adituak,	Umeak, nerabeak, gazteak, helduak	"Larrabetzuko euskera" banaka edo taldeka herrikoen bizipenak jaso. Euskararekin umetan zituzten lotura eta emozioak azalduko dituzte.	Euskararen eguna	Ekintzen balorazioa	T, E	✓
2	6.5.3. Herritarren eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimiaren ezagutzaren bitartez.	Kultur etxean dagoen ume zein helduen kultura eskaintzari buruzko informazioa zabaltzea eta eskaera jaso. Adibidez: panelak, esku orriak, kartelak, sare sozialak...							
2	6.5.4. Kultur eskaintzan parte hartzen duten eragile guztiengan eragitea								

ESPARRUA	Kodea
LARRABETZU OROKORREAN	7

Arduraduna	Udala
Lantaldea	Herritarrak, euskara elkarteak, mankomunitatea, elkarteak, eskola, eskualdeko institutua, koadrilak, Udal ordezkariak
Xede taldea (eragindakoak, ezaugarriak eta beharrak)	Herritarrak oro har
Arloaren xedea (zertarako)	Larrabetzuko herritarrak maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz bizi daitezzen aukerak bermatzea. Horretarako Udalak norbanakoak eta espazioak euskalduntzeko beharrezkoak diren neurriak erabaki eta baliabideak eskura jarriko ditu.

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
3	7.1.1. Harreman sareak sendotu eta elikatzea.	Komunikazio kanal berriak aztertu eta sortu. Herri mailako bloga, facebook, twitter...	Elkarteak, herritarrak eta Udala	Herria	Aisia, kultura eta transmisio arloekin elkarlanean.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	H	✓
3	7.1.2. Eskualde mailako elkarlan zubiak eraikitzea	Eskualdeko eta beste herrietako proiektu, egitasmoak eta esperientziak herrian ezagutzera eman.	Institutua Mankomunitatea	Gazteak, herritarrak	Aisia, kultura eta transmisio arloekin elkarlanean.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	E	✓
1	7.2.1. Norbanakoa, herritartaldeak, elkarteak eta politika(k) norabide berean aritzea	Herri mailako euskara hitzarmen edo konpromisoaren gaia herriratu, solasa piztu... Norbanako konpromisoa hartu. Herri mailako konpromiso bateratua hartu. Euskara logoa sortzeko neurriak hartzea.	Herritarrak Koadrilak Udal ordezkariak Elkarteak	Herritarrak Koadrilak Udal ordezkariak Elkarteak	Planari izena jarri. Logoaren baldintzak adostu. Aurkezpen eta komunikazio ekintza zabala adostu. Adb: Herriko ekintza guztietan ikusgai jartzea.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	H	✓

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehentasuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
1	7.3.1. Euskararen aldeko diskurtsoa barneratzea.	Herritarrei euskara erabiltzearen onurak erakutsi antolatzen diren saioen bidez.	Udala, elkarteak, herritarrak		Arlo guztietako ekintzetan kontuan izan behar da. Zeharka landuko da.	Urtean zehar	Ekintzen balorazioa	H	✓
1	7.3.2. Eragileen arteko elkarlana sustatzea.	Diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak zehaztu, jarraipena egin eta ebaluatu. Adierazleak finkatu.	Udala, mankomunitatea, elkarteak		Diru-laguntzetan Udala eta elkarten arteko elkarlan baldintzak txertatu.	Urtean zehar	Elkarlanaren balorazioa	E	✓
1	7.3.3. Eragile eredugarrien lana aitortzea.	Herrian erreferente diren euskararen liderrak identifikatu eta eredu gisa zabaldu gainerako herritar, talde, elkarten aurrean.	Udala, mankomunitatea, elkarteak, herritarrak	Eragileak, herritarrak,	Transmisio/euskalduntze (ikasleak, gurasoak...), kirol, kultura, merkataritzako herritar erreferenteen lana aitortu. herritarren artean jakin-mina piztu.	Urtean zehar edo euskararen egunean	Aitorpenen balorazioa	H	✓
2	7.4.1. Proiektzio publikoak duten zerbitzuak kontratatzerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea	Kontratazio irizpideak aztertu eta egokitu. Adibidez: hirigintza eta mantenu kontratueta...	Udala, mankomunitatea	Herritarrak		Urtean zehar	Kontratazio irizpideen eguneraketa	E	✓
3	7.5.1. Adierazkortasuna, kalitatea eta zuzentasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.	Erregistroen arabera esamoldeak lantzeko egitasmoak, idazlan-lehiaketak, komiki-lehiaketak, sms lehiaketak, etab.							
1	7.5.2. Herriko hizkera zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea.	Ahozkortasuna landu ikasleekin modu erakargarrian. Berbalagun, eskolako atsedendietan tailerrak...	Udala, mankomunitatea, herritarrak	Herritarrak (Umeak, gazteak Helduak)	Zeharkakotasuna landu: transmisio, euskalduntzea, kirola, aisia eta kulturako ekintzetan kontuan hartu behar da.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	H	✓
2	7.5.3. Bereziki gazteen eta umeen hizkerari arreta berezia eskaini eta hobetzea, horretarako ekimen zehatzak abian jarri.	Helduen irakurzaletasuna bultzatzeko tailerrak. Kontzertuak, jolasak... euskaraz. Agendan hileko berba. Txapelketa bidezko dinamika martxan jartzea.							

Plan Estrategikoa		Kudeaketa Plana 2015							
Lehent asuna	Plan Estrategikoko Ekintza	Ekintza zehatzak	Lantaldea	Xede taldeak	Baliabideak, aurrekontuak, oharrak...	Noiz, zenbatero	Adierazleak	Garra ntzia	2015
3	7.6.1. Komunikazio estrategiak garatzea.	Zabalkunde kanpainak, gidak, eskuliburuak, sare-sozialak...	Udala, mankomunitatea	Herritarrak	Beste arloetako komunikazio estrategiak hobetu eta egokitu. Komunikazio kanal berriak (Herri mailako bloga, facebook. Twiter...)	2016 urtean	Herritarren balorazioa	E	2016
2	7.7.2. Euskara integrazio elementu gisa erabiltzea.	Ongi etorri gida prestatu herritar berrientzat, euskararen garrantzia azpimarratuz (jatorria, historia, aurreiritziak desaktibatu eta euskara elementu integratzaile...).			Beste arloetako ekintzetan kontuan hartu.				
1	7.7.3. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan. Sakelakoetan, tabletetan, gainerako tresnetan eta sarean(jaso zein elikatu) menuak, kontsultak, mezuak, etab. euskaraz izan daitezten.	Sentsibilizazioa kanpaina bisualak: Komikiak, piktogramak, panelak kalean, kiroldegian... euskararen egoera islatuz.	Udala, mankomunitatea, herritarrak oro har, elkarteak,	Herritarrak oro har: gazteak, nerabeak, helduak, erdaldunak, euskaldun berriak	Kafe tertulietan euskararen gaineko herriko kezka, zalantzak mahaigaineratu. Tailer txiki eta praktikoak bultzatu. Egunerokoan herritarrei baliagarri izateko.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	H	✓
1	7.7.4. Ekintza eta neurri eraginkorrak antolatzea herri osoa hizkuntzaren egoeraz jabearazteko.	Euskararen gainean berba egiteko solasaldiak, eztabaidak, kafe-tertulia...			Euskaingintzako adituak, HPS, BFA, unibertsitateko irakasleak, aholkularitza enpresen ... laguntzarekin ekitaldi zein ikastaroak antolatu herriko eragileei formazioa eskainiz.				
2	7.7.5. Erdaldunak euskarara erakartzea	Pertsona eredugarriak edo adituak baliatu arlo eta taldeetan (Aholku Batzordeko eragile...) euskara prestigiatzeko eta eragileak janzteko.							
1	7.7.6. Herriko hizkera prestigiatzea.								
1	7.8.3. Motibazioaren alderdi guztiak kontuan hartu eta lantzea tailer edo hitzaldietan: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.	Urtero herritar erdaldun berrientzat taldekako sentsibilizazio saioak antolatu.	Eskola Udala, mankomunitatea, gazte eredugarriak, Hori bai, elkarteak, herritarrak	Herritarrak (Herrira heldu berriak, gazteak)	Urtero edo partaide nahikoa daudenean taldekako sentsibilizazio saioa antolatu.	Urtean zehar	Ekintzen balorazio eta parte hartzea	H	✓
1	7.8.4. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.	Irakaskuntza, aisia, kirola eta kulturagintzako ekimenetan garatu.							

Bazterrak euskaraz blaitzen saia gaitzen,
euri-txikiak ia konturatu gabe bustitzen gaituen bezala,
gauza txikien bitartez,
mezu ugari izan ditzagula inguruan,
helburu "handi" hori betetzeko bidelagun.
Etengabeko blaitze lana.

Euskararen Aholku Batzordeko partaidea: **Miren Azkue**

